

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO

## Harripeko aingira

IRAKURLE FINA dut laguna. Geroni ere zahartu ahala berdetu egiten ginela esan zidana bera. Berbena-ura ez hartzeko gero, nioen azkenekoan, eta tapa, konputagailuko postontzia ireki ordurako, irakurle lagunaren erantzuna. Bere herrialdean,



CHAUSINHO

Lerro hauen ezkerrekoa da Luisa-belarra (*Lippia triphylla*), arabiar tea ere deitua. Berbena deritzan landare familiako kidea da gure Luisa-belar hau, beheko argazkiko berdan-belarra (*Verbena officinalis*) bezala. Baina ezkerrekoaren ura lotarako aparta den hein berean da kaltegarria bestearena, berdanarena, edatea.



BLUEHAZJUNEM

bere etxean berbena-ura oherakoan hartzen dutela, ospitaletan ere ematen dutela... Nola liteke, baina? Berbena, geurean ahulgarri dena, harenean osasungarri? Harripeko aingiraren bat edo giltzaperatutako katuren bat bada hemen... Aingirarena edo katuarena, ezkutuko muturren bat...

Hasteko, berbena izenez zenbat landare ezagutzen da? Hamabi baino gehiago, hamaika.

Katua giltzaperatzen dutenek hamar behinik badituzte: *verbena, común, de olor, extranjera, fina, bedionda, macho, mayor, melindres, ofical, olorosa...*

Harripeko aingirari usaina hartzen diotenenk, hamahiruren bat, mundu guztikoak: *verveine, caraibe, citronée, citronelle, d'Afrique, de Miquelon, des Indes, des jardins, du Pérou, hybride, odorante, officinale, puante, queu de rat, rugueuse...*

Zientzia-izena *Verbena officinalis* duen landareari deitzen diogu euskaldunok berbena-belarra. Baita berdan-belarra, berberina, belberina, izusta, izurka, aistrika, belargorria, ihitzi-belar, orbanka, zezen-belar... Belar hau paparrean zuela azaltzen zen jendea santu handien jaien bezperetako ilunabarreko dantzaldieta. Hara dantzaldion berbena izenaren jatorria.

Neure ustez, gauean lotarakoan lagunari amak ematen zion berbena, han *verveine citronelle* deitzen dutena, gure Luisa-belarra da, *Lippia triphylla*. Arabiar tea ere deitzen dute. Dantzarako baino lasaigarria, sorgarria, min-kentzailea... eta logalegile aparta da.

# 9.000

Duela 9.000 urteko piper arrastoak, haziak e.a. topatu izan dira Ameriketean. Peruko Guitarrero eta Pachamachay kobetan (K.a. 8.600-8.000 mailan), eta Mexikoko Tehuaca bailaran (K.a. 6.500-5.500). Egundo aurkitutako piper aztarna zaharrenak dira. Babarruna, artoa eta patatarekin batera piperrak ere Ameriketatik ekarriak direla badakigu, baina han bertan edo Asian sortuak ote diren zalantza berritu den honetan, gogoan izateko... Egun Mexikon baino gehiago egiten da, hala ere, Txinan, Espainian, Turkian, Nigerian eta Indian.



Paisajismo zerbitzua · Terraza eta lorategiak diseinatzea

San Frantzisko, 24 · 20870 Elgoibar · Tel: 943744516